



Prozedura: Euskara arloko diru-laguntza  
Esp.zk.: 2024/2-DIRUEUS  
Interesduna: EHIGE EUSKAL HERRIKO IKASLEEN GURASOEN ELKARTE  
Ordezkarria: ABURTO\*HERNANDO,ARKAITZ  
Lekua:  
Gaia: Euskal Eskola Publikoaren jaia antolatzeke dirulaguntza.

## MUNGIKO UDALAREN ETA EHIGE ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

### Ondokoak BATU DIRA

Alde batetik, Arkaitz Aburto, EHIGE elkartearen (IFK -V9524610) ordezkaria modura.

Eta bestetik, Alaitz Erkoreka Baraiazarra andrea, Mungiako Udalaren ordezkaria.

### HONAKOA AZALTZEN DUTE

- 1.- EHIGek urtero-urtero antolatzen du Euskal Eskola Publikoaren Jaia (2024koa Ordizian izan da, ekainaren 2an).
- 2.- Jai horren helburu nagusia zera da: Euskal Eskola Publikoak egunero garatzen duten hezkuntza proiektu euskalduna sendotzea.
- 3.- Helburu hori guztiz bat dator Mungiako Udalak onartuta daukan ESEPen II. Plan Estrategikoaren 2. puntuan ezarritako lehenengo eta bigarren helburuekin. Izan ere, holako ekintzen bidez, euskarazko irakaskuntza bera aldarrikatzeaz eta indartzeaz gain, euskal komunitatea trinkotu egiten da euskarazko hezkuntza-sistemaren bueltan.
- 4.- Hitzarmen hau bat dator Dirulaguntzei buruzkoa den azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorraren 22.2.c. artikuluan eta lege horren erregelamenduko 67. artikuluan xedatutakoarekin.
- 5.- EHIGek behar handia egiten du ikastetxeetan euskera modu integralean -gelatik haratago- landu dadin, ikastetxe-esparrua modu zabalean hartuta. Lanketa integral hori oso beharrezkoa da umeez eta gaztetxoek etorkizunean, euskaraz bizitzeko hautua egin ahal izateko behar-beharrezko izango dituzten gaitasuna eta baliabideak lor ditzaten.

### HONAKOA HITZARTU DUTE

**Lehenengoa.-** Euskal Eskola Publikoaren Jaia antolatzeak eragiten duen gastuari aurre egiten laguntze aldera, Mungiako Udalak EHIGE elkarteari 150,00 euroko laguntza emango dio (urteko).

**Bigarrena.-** Hitzarmen honek urte biko iraupena izango du, eta, alde biak ados egonez gero, beste urtebete luzatuko da.

**Hirugarrena.-** 2024ko dirulaguntzari dagokion kopurua Mungiako Udalaren 2024ko aurrekonturen 04/3351/48110 partidano dago aurreikusita. Gainerako urteei dagokien kopuruari dagokionez, aurrekontuen eskumena duen organoak konpromisoa hartzen du

Egiaztapen-kode segurua:	15250272410162325243	
Código Seguro Verificación:		
Modu elektronikokoan sortutako agiria. Benetakoa dela egiaztatzeke, sartu hemen: <a href="https://sede.mungia.eus/validacion">https://sede.mungia.eus/validacion</a> Documento firmado electrónicamente, autenticidad verificable en <a href="https://sede.mungia.eus/validacion">https://sede.mungia.eus/validacion</a>		
1 / 2		

datozen urtaldietan beharrezkoak diren kredituak gordetzeko, hitzarmen honen betebeharreari aurre egin ahal izateko.

**Hirugarrena.-** Dirulaguntzaren justifikazioa 38/2003 Diru-laguntzei buruzko lege orokorraren erregelamenduko 75. artikuluan xedatutakoaren arabera egin beharko da.


Eta adierazitako guztiarekin ados daudela erakusteko, bertaratuek agiri hau sinatu dute adierazitako lekuan eta egunean.

Firmado electrónicamente por: EHIGE EUSKAL HERRIKO IKASLEEN GURASOEN ELKARTE  
con NIF: ESV95246104  
en fecha : 9 de octubre de 2024  
en hora: 14:22:17

Alkatea / Alcaldesa

Ondoko honek modu elektronikoan sinatua / Firmado electrónicamente por:  
Alaitz Erkoreka Baraiazarra

10/10/2024.8:42:29

Egiaztapen-kode segurua:	15250272410162325243	
Código Seguro Verificación:		
Modu elektronikoan sortutako agiria. Benetakoa dela egiaztatzeko, sartu hemen: <a href="https://sede.mungia.eus/validacion">https://sede.mungia.eus/validacion</a>		
Documento firmado electrónicamente, autenticidad verificable en <a href="https://sede.mungia.eus/validacion">https://sede.mungia.eus/validacion</a>		
2 / 2		